

Generoa Antzinako Erregimenean: Manuel Larramendiren ikuspuntua eta bere itzala*

Gender in the Ancien Régime: point of view and
trace of Manuel de Larramendi.

Bakarne Altonaga Begoña**

RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT

El objetivo de este trabajo es reflexionar sobre las perspectivas de género en el Antiguo Régimen, centrándose en los cambios que se dieron desde la segunda mitad del siglo XVIII hasta el siglo XIX. En primer lugar, se recogerán algunas aclaraciones sobre la historia del género y sus conceptos analíticos. A continuación, analizaremos la visión de género en la obra de Manuel Larramendi, autor vasco significativo del siglo XVIII. Para finalizar, profundizaremos en los complejos procesos de cambio que se dieron en las perspectivas de identidad de género en la segunda mitad del siglo XVIII.

Lan honek Antzinako Erregimenaren genero ikuspegiaren inguruan hausnartzea du helburu XVIII. mendeko bigarren erdialdetik aurrera XIX. menderarte eman ziren aldagaitan zentratuz. Lehenik eta behin, generoaren historiaren eta bere kontzeptu analitikoaren inguruko zenbait argibide emango dira. Ondoren, XVIII. mendeko autore esanguratsu izan zen Manuel Larramendiren genero ikuspegiaren geratuko gara. Amaitzeko, XVIII. mendeko bigarren erdialdean genero identitatearen ikuspegiaren eman ziren aldagaitan prozesu konplexuak landuko dira.

This work is aimed to reflect about gender views during the Old Regime focusing on the changes that took place during the second half of the 18th century until the beginning of the 19th century. Firstly, we will offer an overview of the history of gender and its analytical tools. Afterwards, we will look into the gender views in Manuel de Larramendi's work. And finally, we will focus on the complex changes in gender identities until the beginning of the 19th century.

* Testu hau UPV/EHUko Errektoreordetzak eskainitako doktorego aurreko beka baten markoan sortu da, PIF, (2013). Halaber, hurrengo ikerketa proiektuen markoan sortu da: "La experiencia de la sociedad moderna en España: Emociones, relaciones de género y subjetividades (siglos XIX y XX)", (HAR2016-78223-C2-1-P kodea), Ministerio de Economía, Industria y Competitividad y el Fondo Social Europeo, FEDER-ek finantzatua eta "La experiencia de la sociedad moderna en España 1870-1990" UPV/EHUk finantzatua (GIU08/15 kodea). Era berean, hitzaldi hau zabalagoa den ikerketa baten markoan sortu da. Ikerketa honen zenbait alderdi era zabalagoan aurreratutako izan ziren hurrengo lanean: Bakarne Altonaga: "Mujeres viriles en el siglo XVIII: la construcción de la feminidad por el discurso foralista de Manuel de Larramendi", *Historia Contemporánea*, 52, 2016, 9-42. or.

PALABRAS CLAVE
GAKO-HITZAK
KEY WORDS

Género; cuerpo; Antiguo Régimen; siglos XVIII y XIX.
Generoa; gorputza; Antzinako Erregimena; XVIII. eta XIX. mendeak.
Gender; body; Old Regime; 18th and 19th centuries.

** Universidad del País Vasco /
Euskal Herriko Unibertsitatea
bakarnealtonagabegoña
@gmail.com

Fecha de recepción/Harrera data: 9-01-2018
Fecha de aceptación/Onartze data: 7-02-2018

Manuel Larramendiren lana hainbat ikuspuntutatik landu izan da: filologikoa, politikoa, soziala, besteak beste¹. Testu honen bidez bere lana generoaren historiaren ikuspuntutik aztertuko dugu². Zergatik da interesgarria Antzinako Erregimena, eta konkretuki, Manuel Larramendiren sorkuntza genero kategoria baliatuz ikertzea? Alde batetik, XVIII. mendeari buruzko lan askok Ilustrazioa garaiko pentsamendu korrante nagusi gisa hartu dute gainerako joeren ikerketari garrantzi eskasagoa emanez. Zentzu honetan, korrante tradizionalistek adierazitakoa aztertzea beharrezkoa dirudi garaiko genero esanahien aniztasuna ezagutzeko. Bestetik, Antzinako Erregimenaren ikerketak generoa eta diferentzia sexuala ulertzeko era desberdinak erakusten ditu. Konkretuki, Larramendiren lanaren ikerketak gorputzen esanguratzeko prozesuak historikoak eta aldakorrak direla agerian uzten du. Hau da, bere lanak gorputzek, generoak eta sexuak historia daukatela eta elementu neutro edo objektibo lez aztergarriak ez direla erakusten digu.

Lehenik eta behin, generoaren teoriaren marko analitikoari buruzko zertzelada batzuk emango dira. Ondoren, Larramendiren lanaren inguruan jardungo gara. *Corografía de Guipúzcoa* testua ardatz gisa hartuz, Larramendik Gipuzkoaren errelatoaren inguruan sortu zituen feminitate eta maskulinitate ereduak ikertuko dira. Horietan generoaren, komunitatearen, erlijioaren eta klasearen artean eman ziren harremanak aztertzen saiatuko gara. Azkenik, Larramendiren osteko garaian generoaren eta diferentzia sexualaren ikuspegietan eman ziren zenbait aldaketa aurkeztuko dira, XVIII. mende erdiko pentsalari ilustratuen eta XIX. mende hasierako zenbait euskal idazleren lanak laburki aztertuz.

Generoaren historia emakumeen historiaren berrikuspenetik sortu zela esan daiteke. 60. hamarkadan historia sozialak ekarri zuen berrikuntzetako bat urteetan zehar historia klasikoak baztertu izan zituen subjektuak gehitzea izan zen. Subjektu horien artean emakumeak agertzea oso garrantzitsua izan zen. Auzia ez zen nolana hiko: emakumeak historia liburuetatik sistematikoki baztertuak egon izanak

1. GENEROA KATEGORIA ANALITIKO GISA: ANTZINAKO ERREGI- MENAREN BEREIZGA- RRITASUNAK

1 Luis Michelena: *La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)*, Oviedo, Universidad de Oviedo, 1959; J. Ignacio Tellechea: "Introducción", in Manuel Larramendi *Corografía de Guipúzcoa*, Donostia-San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969, I.-XXXV. or.; Andrés Alberdi: *Manuel de Larramendi (1690-1766)*, Vitoria, Gobierno Vasco, 1990; Joseba Andoni Lakarra (ed.): *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena 1690-1990*, Andoain, Andoaingo Udala, 1992; Pablo Fernández Albaladejo: "Manuel de Larramendi: la particular historia de Guipúzcoa", *Saioak*, 1, 1977, 148.-156. or.

2 Larramendiren lanaren emakumeen irudiak aipatu eta aztertu zituen lehen lanetako bat: Lola Valverde: "Contexto social y situación de la mujer vasca en el Antiguo Régimen" in *Emakumea Euskal Herriko Historian/La mujer en la historia de Euskal Herria*, Bilbo, GITE/IPES, 1988, 35.-45. or.

historia beraren desitxuraketa suposatu zuen. Emakumeen historiak historia androzentrikoa zela eta bere oinarriak – objektibotasunaren eta unibertaltasunaren ideiak – ikuspegi kritiko batetik birpentsatzea beharrezkoa zela erakutsi zuen³. Batez ere 80. hamarkadatik aurrera, teorilari feministen eskutik emakumeen historiaren mugen inguruko hausnarketak sortuz joan ziren. Mahaigaineratu ziren kritiken artean garrantzitsuenetarikoa “emakumeak” kategoria unibertaltala eta adiera bakarrekoa bilakatu zela izan zen. “Emakume” kategoria unibertaltak emakumeen arteko diferentziak nolabait lausotzea ekarri zuen emakume izatearen esperientziaren heterogeneotasuna kontuan hartu gabe eta, ondorioz, emakume desberdinen arteko partikularitasunak baztertuz.

Muga edo gabezia hauen hausnarketatik sortu ziren generoaren eta sexuaren inguruko teorizazio berriak⁴. Historiaren alorrean teorizazio erabilgarriena eta garrantzitsuenak Joan W. Scott teorilari estatubatuarrek eskaini zuen⁵. Postestrukturalismoaren eragina jasota, batez ere Jacques Derridarena eta Michel Foucaultena, Scottek lengoaiak eta diskurtsoak errealitatearen esperientziari esanahia ematerako orduan zeukaten garrantzia azpimarratu zuen⁶. Alegia, ikuspegi honentzat esanahia ez litzateke materiari berezkoa edo esentziala zaion entitate bat izango, betierekoa, ahistorikoa eta objektiboa baizik eta prozesu kontzeptualen, linguistikoen eta diskurtsiboen bidez sortutakoa⁷. Honek, beraz, errealitateko objektuen esanahiak aldakorak direla eta nahitanahiez bere testuinguru kulturalaren, sozialaren eta politikoaren arabera ulertu behar direla suposatzen du. Hizkuntzaren eta errealitatearen arteko harremanaren teorizazio honi jarraituz, emakume izatea zer izan den – eta baita gizon izatea ere – bere testuinguru konkretuen arabera ikertu behar da. Scottek emakumeen historiaren alorrean egiten ziren ikerketetan hurrengo arazoa ikusi zuen: generoa sozialki eta kulturalki eraikitzen zela onartzen zen, baina sexua eta sexuen arteko diferentzia biologikotzat, esentzialtzat, hartzen jarraitzen ziren.

3 Euskal egile emakumeen bazterketaren eta tradizio androzentrikoaren harira ikusi Mari Jose Olaziregi: “Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa”, in *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearan atarian (I-II)*, Vol. 2, Bilbo, Euskaltzaindia, 2003, 203.-221. or.: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/54862.pdf>. (Azken kontsulta 2017/09/22).

4 Mari Luz Esteban: “Gorputzaren antropologia, gorputz ibilbideak eta genero-harremanak” in Alaitz Aizpuru eta Bakarne Altonaga (koord.): *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*, Bilbo, UEU, 2014, 97.- 107. or., 98. or eta hurrengoak.

5 80. hamarkadan idatzi zituenen artean ezagunena: Joan W. Scott: “Gender: a Useful Category of Historical Analysis”, *The American Historical Review*, 91:5, 1986, 1053.-1075. or.

6 Joan W. Scott: “Deconstructing Equality-Versus-Difference: or, The Uses of Poststructuralist Theory for Feminism”, in Wendy Kolmar eta Frances Bartkowsky (ed.): *Feminist Theory A Reader*, California, Mayfield, 2000, 414.-423. or.

7 Miguel Ángel Cabrera: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad*, Madrid, Cátedra, 2001, 77. or.

Historialari estatubatuarrak bere azken lanetan emakumetasunaren eta gizontasunaren irudiak aldakorrak eta kulturalak direla onartzea nahikoa ez dela azpimarratu du. Horrekin batera, gorputza biologikoki establea eta aldaezina ez dela onartuko beharko litzateke. Alegia, gorputza ezin daiteke hizkuntzaren eta diskurtsoaren aurreko espazio material neutrotzat ulertu. Judith Butler filosofoak eraginda, Scottek sexua bera ere – gorputz sexuatua – historizatzea beharrezkoa dela adierazi du, hain zuzen ere biologikotzat hartzen dugun sexua diskurtsiboki eraikitzen delako⁸. Zentzu honetan, sexua ez litzateke generoaren oinarri objektiboa izango, alegia, generoari – kulturala litzatekeen horri – esangura ematen dion errealitate naturala. Alderantziz, generoa bera litzateke diferentzia sexual anatomikoa naturala balitz bezala eraikitzen edo esanguratzen duena. Hau da, sexuaren esanahia emakumetasunari eta gizontasunari buruz dauzkagun ikuspuntuaren arabera – izan medikuak, politikoak edo sozialak – eraikitzen dugu diskurtsiboa den prozesu hau naturala denaren argudiopean maskaraturaz. Azken finean, generoa kulturalki eta diskurtsiboki eraikia den moduan, sexua ere eraikia litzateke.

Honekin batera, Scotten genero kategoriaren alderdirik baliotsuena diferentzia sexualak – historikoki espezifikoa eta aldakorra den emakume eta gizonen arteko desberdintasunak – gainerako eraikuntza hierarkikoak esanahi espezifikoez hornitzeko gaitasuna daukala erakusten duela da. Sexuen arteko oposizio binarioak hierarkikoak diren beste eraikuntzen osagarri bihurtzeko eta hauek esanahiez hornitzeko gaitasuna zeukala adierazi zuen. Hau da, generoak gainerako botere harremanak transbertsalki gurutzatzen dituela erakutsi zuen. Alegia, generoaren esanahia beste motatako eraikuntza identitarioekin batera harremanean sortzen da emakume eta gizonen identitateen eraikuntzarako marko eta baldintza jakinak sortuz⁹. Era laburrean esanda, identitate aldagaiek, nazioak, etniak, klaseak, erlijioak eta generoak elkarri eragiten diote historikoki espezifikokoak diren feminitate eta maskulinitate ereduak eta irudiak sortuz. Genero kategoria erabiliz, beraz, ez dugu bakarrik objektu konkretu bati buruzko informazioa lortzen – emakumeei edo feminitate ereduari buruzkoa, esaterako – baizik eta mundua, errealitatea eta gizartea bera ulertzeko forma konkretuei buruzko ezagutza sakona ere lortzen dugu. Horixe bera da Larramendiren lanaren kasuan aztertu nahi duguna.

Larramendik bere lanetan emakume zein gizon gipuzkoarrei buruz adierazitakoak Antzinako Erregimenari berezkoak zitzaizkion zenbait

8 Joan W. Scott: "Género: ¿Todavía una categoría útil para el análisis?", *La manzana de la discordia*, Gabriela Castellanos (itz.), 6:1, 2011, 95.-101. or.; Judith Butler: *Bodies that Matter. On the Discursive Limits of 'Sex'*, New York, Routledge, 1993.

9 Nerea Aresti: "La categoría de género en la obra de Joan Scott", in Cristina Borderías (ed.): *Joan Scott y las políticas de la historia*, Barcelona, Icaria, 2006, 223.-232. or.

ezaugarriren araberakoak izan ziren. Lehenik eta behin, Michel Foucaultek eta ondoren Thomas Laqueurrek azaldu zuten moduan, XVIII. mendetik aurrera sexua eta generoa ulertzeko moduak berebiziko aldaketa jasan zuela azpimarratu behar da¹⁰. Ilustrazioak gizakia ulertzeko eskaini zituen eredu berrien aurretik eta XIX. mendean zehar diskurtso medikoek gorputza termino zientifiko hutsetan definitu aurretik, norbanakoaren sexu biologikoa ez zen zientzia modernoak definitu zuen moduan ulertzen. Sexua ez zen gizabanakoaren genero identitatea nahitaez determinatzen zuen datu biologiko lez ulertzen. Alegia, giza esentzia ez zetzan bere sexuak ezarritako mugetan. Ulerkera hau ondorengo urteetan garatuz joan zen. Izan ere, sexuen arteko diferentziak ez ziren bi esentzia edo natura desberdinen arteko desberdintasun gaindiezin gisa ulertzen, baizik eta graduzkoak eta, kasu batzuetan, malguak eta aldakorak ziren diferentzia gisa. Bertuterako bidean ez ziren nahitaez sexuen arteko diferentziarik egiten. Bertutea, orokorrean, balio birilek definitzen zuten. Birilitatea ez zen bakarrik ahalmen fisiko lez ulertzen, indar edo sendotasun gisa, esaterako. Bertute espiritualari ere erreferentzia egiten zion. Gizarte aurremoderno tradizionalan bertutea erlijiosotasunari eta baita, noski, maila sozialari ere lotuta zegoen. Emakumeak gizonezkoak baino inperfektuagoak zirelako ustea arrunta zen eta, hortaz, birilitate eta bertute maila altuenak, normalean, gizonezkoei egotzitako egoerak ziren. Misoginia bortitzeko gizarteak ziren, azken finean. Baina generoaren eta sexuaren ulerkera marko honetan pertsonen identitatea definitzerako orduan beste faktore batzuek pisu handiagoa har zezaketen. Hierarkia soziala, komunitatearen ezaugarriak edota erlijiosotasuna elementu garrantzitsuagoak izan zitezkeen pertsona baten posizio soziala determinatzerako orduan. Pribilegioaren logika oso indartsua zen; maila sozialak, hierarkiak, pisu izugarria zeukan. Zentzu honetan, nahiz eta oso gizarte misoginoak izan, pribilegioaren logika honek salbuespenerako guneak irekitzen zituen eta zenbait emakumek – izan gerlako ekintzengatik (Katalina Erausokoa) edo euren erlijiosotasun gorenarengatik (Teresa Ávilakoa) edo euren posizio hierarkikoarengatik (Isabel Katolikoa) – bikaintasun maila gorenen aitortpena lor zezaketen gainerako emakumeen zein gizonen artean nagusituz. Garai honetan, beraz, generoaren pisua erlatiboa zen ez zuelako nahitanaiez pertsona baten identitatea zein zen determinatzen¹¹. Emakume erregina, esaterako, basailua baino

10 Michel Foucault: *Historia de la Sexualidad. I. La voluntad de saber*, itzul. Ulises Guinazú, Madrid, Siglo XXI, 1980; Thomas Laqueur: *Making sex. Body and Gender from the Greeks to Freud*, Cambridge, Massachusetts & London, Harvard University Press, 1990.

11 Nerea Arestik Antzinako Erregimenaren sexua eta generoa ulertzeko eredu hau argi azaltzen du Euskal Herriko pertsonaia historiko famatua izan zen Katalina Erausokoaren kasua azaltzean, ikus Nerea Aresti: “The Gendered Identities of the ‘Lieutenant Nun’: Rethinking the Story of a Female Warrior in Early Modern Spain”, *Gender & History*, 19:3, 2007, 401.-418. or. 402. or.; Nerea Aresti: “Generoa, gorputzak eta historia”, in Aizpuru, Altonaga (koord.): *Diskurtsoak*, 73.-95. or.; Nerea Aresti: “Juegos de integración

askoz ere garrantzitsuagoa zen, nahiz eta emakumea izan. Antzinako Erregimenaren testuinguru honetan, Manuel Larramendiren kasuan, emakume gipuzkoar sendo eta bertutetsuak beste edozein tokitako emakumeekin – zein gizonekin – alderatuz maila gorenekoak ziren, bikainak guztien artean. Probintziaren pisua, gipuzkoartasuna, zentzu erlijiosoarekin lotura handia zeukana, oso garrantzitsua zen Gipuzkoako emakumeen bikaintasuna, indarra eta birilitea aldarrikatzerako orduan.

Larramendik emakume eta gizon gipuzkoarrei buruz adierazitakoa Antzinako Erregimenak generoa eta diferentzia sexuala ulertzeko eskaintzen zuen marko honetan ulertu behar dugu. *Corografía de Guipúzcoa* lanean probintziako emakumei buruz “de valor superior a su sexo” zirela idatzi zuen edota “algunas y muchas han hecho cosas hazarosas y muy varoniles”¹². Zein zentzutan ulertu behar ditugu adierazpen hauek? Goian aipatu dugun generoaren pisu erlatiboaren ideia bere idatzietan diferentzia sexualak daukan zentzua ikertzeko klabea da. Larramendik utzi zigun emakumetasunaren ikuspegi hau Gipuzkoako foruen eta berezitasun probintzialaren defentsaren testuinguruan kokatu behar dugu, gizarte estamentalaren, tradizionalistaren eta erlijiosoaren baitan. Kontuan izan behar dugu, halaber, Larramendik borbondarren etxearen etorrera ezagutu zuela. Aski ikertua izan den moduan, Larramendik bere Gipuzkoari buruzko ikuspuntua hainbat testutan adierazi zuen. Baina *Corografía de Guipúzcoa* da, gutxienez generoaren ikuspegiaren alderditik, elementurik aberasgarrienak eskaintzen dituenak. Larramendik gipuzkoarren kristautasun primitiboa, odol garbitasuna eta kaperatasun unibertsala defendatu zituen. Era berean, euskara beraren garbitasunaren eta erabilgarritasunaren inguruan egin zuen defentsa aipagarria da. Eta jakina, Gipuzkoako foruen defentsa amorratua egin zuen, ez bakarrik *Corografía*n, baita *Sobre los fueros de Guipúzcoa* lanean, besteak beste. Pablo Fernández Albaladejok adierazi duenez Larramendirena foruzaletasun probintzialaren diskurtso politikoa izan zen¹³. Larramendiren idatziek komunitate probintzial gipuzkoar baten identitatea sendotzeko helburua zeukatela argi dago. Gipuzkoarren iragan mitiko bat berreraiki zuen, tradizionalak ziren hainbat mito berrituz, bere

2. LARRAMENDIREN GIPUZKOA ETA DIFERENTZIA SEXUALA: EMAKUME GIPUZKOAREN BIKAINASUNA

y resistencia. Discursos normativos y estrategias feministas (1860-1900)”, *Historia Social*, 68, 2010, 25.-46. or., 28. or.

¹² Manuel Larramendi, *Corografía de Guipúzcoa*, Donostia-San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones 1969, 190. or.

¹³ Pablo Fernández Albaladejo: “Imposible vencido, imposible vencida: la provincia invencible de Manuel de Larramendi”, in Joseba Andoni Lakarra (ed.): *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena 1690-1990*, Andoain, Andoaingo Udala, 1992, 77.-90. or., 85. or.

orainaldiko gipuzkoarren identitatea esanguratzeko. Izan ere, ezaugarri horiek guztiak gipuzkoarrak kalitate moral eta bertute bikainez eta zalantzaezinez betetzeko goraipatzen ziren. Ikusiko dugunez, Gipuzkoari buruz sortu zuen errelatoa erreferente maskulino eta femenino bikainez hornitu behar izan zuen eredu fisiko eta moralizat funtziona zezaten.

Larramendiren proiektu sozialak nolabaiteko berdinaletasuna aldarrikatzen zuela dirudi, kaperatasunaren unibertsalizazioan oinarritzen zena. Alabaina, adierazi den igualitarismoa ez litzateke ulertu behar demokrazia modernoaren aitzindaritzat baizik eta Antzinako Erregimenearen izaera politikoaren ardatzetan¹⁴. *Corografía de Guipuzcoan* Larramendik noblezia moten arteko desberdintasunak ezarri zituen. Alde batetik, odol noblezia aipatu zuen, gipuzkoar guztiak zeukatena. Bestetik, eskuratutako noblezia, aberastasunen eta gerra bidezko ekintza gogoangarrien bidez lortzen zena. Eta azkenik, bertutearen noblezia, gipuzkoar bakoitzaren kalitate moralari eta kristauari zegokiona. Beraz, nahiz eta odol nobleziaren bidetik nolabaiteko berdintze politiko bat defendatzen zuen, eskuratutako noblezian ez zegoen berdintasuna aldarrikatzerik. Larramendiren helburua ez zen zatiketa estamentalak iraultzea. Hala ere odol nobleziaren eta garbitasunaren aldarrikapenaren esanahi sinbolikoa oso garrantzitsua zen. Elementu diskurtsibo soila izanagatik ere, noblezia unibertsala izaera ekonomiko eta politikoko aldarrikapenak egiteko argudio lez erabilia izan zen eta gipuzkoar komunitatearen alderdi definitzaileetako bat bihurtu zen.

Zentzu honetan Larramendik diskurtso honen zenbait alderdi taxutu behar izan zituen. Hain zuzen ere baserritar, errementari eta arrantzale xumeen noblezia eta bikaintasuna – gipuzkoarrak ziren heinean – defendatu zituen guztiz hierarkikoa zen jendarte baten baitan. Tentsio hauen konponketa eskulanaren birplanteamendutik etorri zen. Berak adierazita “los oficios de suyo no son viles, ni manchan ni deshonoran (...). En Guipúzcoa nunca se han manchado los oficios, porque nunca han caído sobre sangre villana”¹⁵. Ikuspegi hau ez zetorren tradizionalki Antzinako Erregimeneko gizarteak lanari atxikitako esanahi ezkorrekin bat, katolizismoak giza lanari egozten zizkion ezaugarri negatiboek eraginda. Eskuz egiten zen lana konnotazio kristau negatibo askok zipriritzen zuten: sufrimendua, penitentzia, sakrifizioa, mina etab. Lana, eskulana, halaber, pertsonen arteko hierarkizazioak sortzeko bide bat zen, gizabanakoak sozialki posizionatzeko elementu garrantzitsua.

Baina, Larramendik ez zuen kontraesanik ikusi lan xumeen eta nobleziaren artean: kaperatasunaren nozioa ez zen sartzen

14 Kaperatasun unibertsalaren nozioaren eta bere kritiken inguruan ikusi Alfonso Otazu: *Igualitarismo vasco: mito y realidad*, Donostia-San Sebastián, Txertoa, 1973; Lourdes Soria Sesé: “La hidalguía universal”, *Iura Vasconiae*, 3, 2006, 283.-316. or.

15 Larramendi: *Corografía*, 140. or.

eskulanarekin kontraesanean. Aldi berean, argudio honen bidez Larramendik Gaztelako noblezia bera kritikatu zuen, noblezia alfer eta xahutzaitzat ezaugarritu zuelarik. Nolabait, noblezia gaztelarraren kritika gipuzkoar guztien odol nobleziaren defentsa egiteko erabili zuela argudia daiteke. Nobleziaren inguruko ikuspuntu hau ez zen garairako arruntzia. Bere garaiko idazle erlijiosoek, Jesusen Lagundiko bere kide ziren Agustin Kardaberazek edota Manuel Mendiburuk esaterako, pobreziaren duintasunari buruzko diskurtso klasikoa erreproduzitu zuten. Baserritarren lanaren laudorioa egin zuten hain zuzen ere penitentiaren eta sufrimendurekin lotzen zutelako. Ikuspuntu katoliko zorrotzenaren markoan, herri xumearentzat lurreko lan astuna gorputza tentaziotik aldentzeko bide duina zen¹⁶. Larramendik, ostera, beste zentzu bat eman zion, kutsu erlijioso horrekin nahitaez kontrajartzen ez zena, baina zentzu politiko sakona zeukana. Izan ere, pasarte batzuetan Larramendik lana eta noblezia gipuzkoarren identitatearen bi elementu bereizezintzat definitu zituen: “Guipúzcoa (...) emplea en los oficios humildes de las repúblicas a guipuzcoanos, todos nobles e hidalgos de sangre: zapateros, sastres, herreros, carpinteros, sombrereros, jornaleros, (...) todos son de nobles, siendo guipuzcoanos”¹⁷. Gipuzkoarren nobleziarekin uztargarria izan zedin Larramendik gipuzkoarren eskulanaren definizio berri bat sortu zuen Antzinako Erregimenaren kontzeptio negatiboak alde batera utziz.

Bere errelato edo narrazio honen alderdirik erakargarriena diferentzia sexualaren, generoaren eta gorpuztasunaren ikuspegi konkretu bat agerian uzten duela da. Argi dago Larramendik ez zuela berariaz emakume eta gizonen harremanari buruz hitz egiteko asmorik izan. Hala ere, gipuzkoarrentzat irudikatu zuen Gipuzkoa foralari emakumetasun eta gizontasun eredu jakin batzuk egotzi zizkion. Goian aipatu dugun moduan, generoaren ikusmoldeen eta gorputzaren ikusmoldeen arteko harremana estua da, era batera edo bestera, batak besteari eragiten diotelako eta historian zehar beraien arteko harremanak era desberdinean garatu direlako. Larramendiren kasuan Gipuzkoa foralaren oinarri zen gorputzak Gipuzkoari berezkoak zitzaizkion balioak – moralak eta fisikoak – gorputzu behar zituen gauza guztien gainetik. Nolabait esanda, gorputzaren kanpo itxura gipuzkoartasunaren balio moralen korrelato materializat hartu zuen, beraien kristautasun zorrotzaren eta odol garbitasunaren adierazpen fisikotzat, alegia. Gorputz gipuzkoararen eta diferentzia sexualaren eraikuntza hainbat gairen inguruan ageri da. Baina baserri giroko jardueren inguruan gorputza nola irudikatu zuen bereziki interesgarria suertatzen zaigu. Zeregin hauei loturik egileak gorputz irudi oso boteretsuak eta birilak sortu zituen. Gorputz eta gorpuztasun ideal bat itxuratu zuen zeinetan balio fisiko gorenenak indarra eta go-

16 Honen inguruan ikusi: Belen Altuna: “La invención del baserritarra como verdadero cristiano vasco” *Bitarte: Revista Cuatrimestral de Humanidades*, 4, 2000, 5.-30. or.

17 Larramendi: *Corografía*, 136. or.

gortasuna ziren: “de estatura regular, bien agestados, blancos, aun los que todo el año sufren los ardores del sol y las inclemencias del tiempo” zioen Larramendik, “y bien pobladas cabeza y barba. Son de cabeza tan sana, dura y fuerte, que apenas hay herida de muerte en la cabeza (...) En los pueblos formados, las gentes de calle son de más delicadeza”¹⁸.

Hainbat egilek adierazi duten moduan, bestetasunaren eraikuntza ezinbesteko tresna diskurtsiboa da norbanakoaren nortasuna eraikitzeke eta nitasunari edo gutasunari zilegitasun moral eta politikoa egozteko¹⁹. Zentzu honetan jesuita andoaindarrak gorputz ideal honi kontrajartzen zitzaizkion hainbat irudi sortu zituen. Horien artean, “afeminatua”ren irudia, ahula edo sendoa ez zena adierazteko erabili zuen, gipuzkoarren indarrari kontrajartzen zitzaiona irudikatzeke:

No se ven en Guipúzcoa hombres de cuerpos feos, monstruosos, contrahechos y de semblantes brutos, como en otros reinos. Son ágiles, vivos y prontos, fuertes y robustos, y todos con caras de hombres – que no degeneran en carillas de mujer, o por mal comidos, o por haber nacido endebles, o por educación afeminada²⁰.

Gorputz irudi hauei dagokionez zehaztasun bat aipatu behar da. Kontuan izan behar dugu Larramendik fisikotasun handia adierazten zuten irudiak sortu bazituen ere gorputza Trento ondorengo eredu katoliko zorrotzaren arabera ulertu zuela bere garaiko Jesusen lagundiko kideek bezala²¹. Roy Porter historialariak adierazi bezala, batez ere Trento ondorengo kontraerreformaren ostean, katolizismoaren baitan gizakia ulertzeko era dikotomikoa indartu zen: gorputza, mundu zikinarekin eta iragankorrekarekin identifikatua, betiereko arimari kontrajartzen zitzaion²². Gorputzak, oro har, haragiak, bekaturako bidea zekarrelako ustea oso arrunta zen egile erlijiosoen ikuskeran. Zentzu honetan, Larramendik gipuzkoarren gorputz errepresentazioez egin zuen erabilerak ez zuen hainbeste beraien kalitate fisiko eta materialak laudatzeko asmoa baizik eta kode moral zorrotz eta komunitate bikain baten aldarrikapena egiteko helburua. Esan daiteke beraien moralitate zorrotzak gipuzkoarren gorputza, haragia, blindatzen zuela erlijioaren eta komunitatearen balioak gorpuzten zituztelako. Alegia, Larramendik ez zuen lurreko gorputz material mundutarraren aldarrikapena egin, baizik eta gorentzat irudikatu zuen komunitate baten gorazarrea bere emakumeen eta gizonen laudorioaren bidez.

18 Larramendi: *Corografía*, 187. or.

19 Edward Said: *Orientalism*, Nueva York, Vintage, 1979.

20 Larramendi: *Corografía*, 187. or.

21 Euskal Herrian Trento ondorengo zorrotzasun erlijiosoak izan zuen eraginaren inguruan ikusi Belen Altuna: *Euskaldun fededun. Euskaldun ona izateko modu baten historia*, Zarautz, Alberdania, 2003.

22 Roy Porter: *Flesh in the Age of Reason*, London, Penguin, 2004.

Larramendiren obran emakumeak ere gipuzkoarrentzat eraiki zuen ideal birilaren arabera irudikatzen ziren:

Las mujeres en Guipúzcoa son las más hermosas que hay en toda España; de bellissimo color, bien apuestas, rollizas, fuertes, ágiles y sanas; de pocos melindres y hazañerías, de gran despejo, que bajan y suben a sus caserías y montes con el mismo aire y vigor que si no hubiera cuesta. Son más robustas y de más aguante que los hombres en llevar y traer cargas pesadísimas sobre su cabeza de un lugar a otro, distante tal vez tres o cuatro leguas²³.

Orokorrean, Ilustrazio europarrak gozotasuna, fintasuna eta dotorezia bezalako ezaugarriak ezarri zituzten emakumeei berezkoa zitzairen esentziaren atributu bezala. XVIII. eta XIX. mendeetan zehar, pentsamendu ilustratuaren ildotik feminitatea naturalizatuz joan zen amatasuna, domestizitatea eta ezkontza emakumeen patu naturaltzat ezarritz²⁴. Baina Larramendiren obrak erakusten du XVIII. mendean zehar proposamen ilustratuekin batera beste irudi batzuk ere, oso erroturikoak, existitu zirela. Andoaindarraren obra osoan zehar, ez bakarrik *Corografía*, amatasuna, esaterako, bigarren planoan geratu zen. Larramendik baseritarrei, mojei, serorei etab.ri buruz hitz egin zuen. Baina amatasunaren inguruko aipamenak eskasak izan ziren eta ez zentzu laudagarriari. Emakumeen hezkuntzari buruz idatzi zuenean amatasuna ez zen inoiz emakumeen formakuntzaren erdigunean kokatu pentsalari ilustratuek egingo zutenaren kontra. Horrela ageri da 1741. urtean Bergaran nesken hezkuntzarako sortu zen *Nuestra Señora de la Soledad* mintegiarentzat idatzi zituen arauetan²⁵. Larramendik arautu zuen programak feminitatea erlijiosotasun zorrotz batek gurutzatzen zuela erakusten du, amatasun intentsiboarekin eta naturalizatuarekin zerikusi eskasa zuten ildoak jarraitzen zituena. Nesken heziketa pietate sakona praktikatzerara bideratuta zegoen nagusiki hurrengo pasarteak adierazten duen moduan: “[serán] buenas christianas enttendiendo las máximas santas del Ebanxelio y de la virtud, acostumbándose desde pequeñas a hacer vn grande aprecio de las cosas de el zielo y un alto desprecio de las

23 Larramendi, *Corografía*, 188. or.

24 Ilustrazioaren planteamenduak ezagutzeko ikusi Monica Bolufer: *Mujeres e Ilustración. La construcción de la feminidad en la España del siglo XVIII*, Valencia, Institució Alfons el Magnànim, 1998. Hala ere kontuan izan behar dugu ilustrazioaren eta ondoren liberalismoaren ildotik finkatuz joan ziren feminitate irudi hauek ez zirela guztiz hegemoniko bihurtu. Hau da, garaian garaiko beste irudi edo ereduarekin elkarbizi izan dira garaikidetasunaren historia osoan zehar. XVIII. mendean zehar Ilustrazioaren testuinguruan emakumeen eta generoaren historiak maila transnacionalean izan zuen garapena ezagutzeko ikus Sarah Knott eta Barbara Taylor (ed.): *Women, gender and Enlightenment*, Hampshire, Palgrave, 2005.

25 María Rosa Ayerbe: “Manuel de Larramendi y la enseñanza femenina en el siglo XVIII. Constituciones del Seminario de niñas ‘Nuestra Señora de la Soledad’, de Bergara (1741)”, *Boletín de RSBAP*, 64:2, 2008, 795.-815. or.

del siglo, entrañando en sus almas el santto temor de Dios”²⁶. Lanaren luzerak ez digu aukerarik ematen Larramendiren ikuspuntua heziketa proposamen ilustratuekin alderatzeko. Baina argi dago bere idatzietan eta pentsamenduan emakumeen zereginak eta, oro har, feminitatearen definizioa zentzu ilustratuko amatasunetik eta domestizitateetik zeharo aldentzen zirela.

Larramendik *Corografía*n emakumeak gizonak bezalaxe lanean irudikatu zituen:

Y ¿qué hacen a todo esto las mujeres? En las caserías ayudan varonilmente a sus maridos, cavando, layando, sembrando y todas las demás faenas, y aun conduciendo carros cargados, como boyerizas. En los pueblos sembrando linos por sí mismas y prosiguiendo tantos trabajos como son necesarios hasta reducirlos a copos (...) Otras muchísimas son jornaleras en el tiempo de cosechas del trigo y de su trillamiento en las eras (...) mujeres son las que ayudan a descargarlos y las que llevan la manzana en cestas a los lagares y sacan después la sidra de la finia y la trasiegan a las cubas, que es faena de muchos días²⁷.

Egileak ez zuen lan fisikoa beraien emakumetasunarentzat kaltegarritzat jo. Gipuzkoa baseritarren indarrak eta birilitateak ezaugarritutako komunitate bat zen, bai gizonezkoek eta baita emakumezkoek ere bete behar zutena. Emakume gerlariak ere aipatu zituen birilitate gipuzkoar honen adierazle gisa. Emakume gipuzkoarren janzkera tradizionala sutsuki defendatu zuen bere austeritatearengatik. Eta aldi berean gipuzkoarren dantza mistoak – gai zeharo polemikoa zena – defendatu zituen, hain zuzen ere gipuzkoarren sendotasun eta zorroztasun erlijiosoak ez zuelako euren moralitatea kinkan jartzen.

Ikuspuntu hau ulertzeko kontuan izan behar dugu Larramendik ez zuela bere garaiko Gipuzkoako emakumeen eta gizonen deskribapen huts bat egin. Idazle andoaindarrak pentsaera jakin baten bidezko feminitatearen eta maskulinitatearen ideia konkretu batzuk eraiki zituen. Hain zuzen ere, Larramendiren lanak feminitatea eta maskulinitatea historian zehar aldakorrak izan direla erakusten digu. Alde batetik, gorputzaren, generoaren eta sexuaren esangurak desberdinak izan direla garbi uzten du. Bere lanak argi erakusten du sexu biologikoak ez duela beti pertsonen generoaren eraikuntza determinatu, alegia, sexuaren eta generoaren arteko harremanak historia daukala. Larramendiren emakume gipuzkoar birilak eta sendoak horren adierazgarri dira. Bestetik, emakume gipuzkoarren identitatea eraikitzerako orduan generoaren pisua probintziak eta komunitateak hartu zuten pisuaren alboan gutxitu egin zela ikusi dugu. Hau da, emakume gipuzkoarren identitatea eraikitzerako orduan genero

²⁶ Ayerbe: “Manuel de Larramendi”, 807. or.

²⁷ Larramendi: *Corografía*, 203. or.

kategoria komunitate kategoriaren garrantziarekin alderatuta bigarren maila baten geratu zen. Emakume gipuzkoarrak Gipuzkoako ohorearen, ausardiaren eta zorrotzasun erlijiosoaren erakusle izan behar ziren. Balio horiek gorpuztu behar zituzten azken finean. Larramendiren pentsamenduaren markoan ezaugarri horien inkorporazioak misoginiak emakumei egotzitako atributu negatibo guztiak gainditzeko aukera zekarren. Gipuzkoako emakumeak bikainak ziren gipuzkoarrak ziren heinean. Ikuspuntu hau, beraz, ez da inola ere emakumeen defentsa orokor lez ulertu behar. Izan ere, misoginia gordin batekin elkarbizi zen. Baina, hasieran aipatu dugun Antzinako Erregimenaren sexu-generoaren logikak, sexuen arteko desberdintasuna argudio biologikoetan oinarritzen ez zuenak, zenbait emakumeren – ez emakume guztien – laudorioa ahalbidetzen zuen. Hori da, hain zuzen ere, Larramendiren emakume baserritar gipuzkoarren kasua.

Larramendiren pentsamenduan emakumeen juzgua egiterako orduan probintziaren pisua gailentzen zen. Honek, noski, ez zuen ordena sozialaren subertsioa ekartzeko asmorik, ezta emakumeen emantzipazioa aldarrikatzeko helburua ere. Izan ere, emakume indartsuaren topikoa ikertu duten ikerlari feministek adierazi duten moduan rol hori genero ordena patriarkala indartzeko eta mantentzeko erabilgarria izan da²⁸. Berdintasun politikoaren eta sozialaren aldarrikapena ez zen operatiboa garai hartan. Hain zuzen ere, Larramendirentzat emakume gipuzkoarren bikaintasuna aldarrikatzea “bestearekiko” diferentzia sortzeko bitarteko bat izan zen, emakume gipuzkoarren birilitatea Gipuzkoako bikaintasunaren adierazpena zelako. Azken finean, emakume gipuzkoarrak ez ziren bakarrik gainerako probintzietako emakumeak baino bikainagoak, baita gainerako probintzietako gizonak baino hobekak ere. Larramendi bezalako autoreen idatziek erakusten digute historian zehar generoaren pisua erlatiboa eta aldakorra izan dela, hain zuzen ere gorputza eta sexua bera ere era diferentzetan ulertu izan direlako, goian aipatu den moduan.

Manuel Larramendi 1766. urtean hil zen eta Jesusen Lagundia 1767. urtean egotzi zuten Espainiatik. 1765. urtean *Euskalerraren Adiskideen Elkarte*a ofizialdu zen. Elkarte honen inguruan egindako ikerketak ez datoz bat. Batzuen aburuz, ez zuen inolako aldaketarik ekarri izugarri elizkoiak eta elitistak zirelako. Ikertzaile hauen aburuz ez dago elkarte hau edo bere kideak ilustratutzat jotzerik²⁹. Beste egile batzuen aburuz, ordea,

3. XVIII. MENDETIK GARAIKIDETASUNE- RANTZ

28 Teresa del Valle (zuz.): *Mujer vasca: imagen y realidad*, Barcelona, Anthropos, 1985.

29 Javier Fernández Sebastián: *La génesis del fuerismo: prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco, 1750-1840)*, Madrid, Siglo XXI, 1991, 19.-21. or.; José María Portillo: *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las provincias*

Peñafloridak zuzendutako elkartea eta bere proposamenak erabat ilustratuak izan ziren, batez ere zientzia, teknika eta ekonomiaren alorrari dagokionez. Zentzu horretan, euskal noblezia entziklopedistari, *Bergarako Erret Mintegiko* sortzaileei, modernitatearen zantzuak ikus dakizkiokela adierazi dute³⁰. Egia esan, gaia oso konplexua da, Ilustrazioa bera ezaugarritzea oso zaila delako, ez bakarrik Euskal Herrian baizik eta Espainia eta Europa mailan ere. Hala ere, klasifikazioak egitea baino beraien garaia nola ulertu zuten aztertzea da hemen interesatzen zaiguna, beraien proposamenek aldaketarik ekarri zituzten ikertu ahal izateko. Aldaketarik ekarri al zuten erlijioaren, naturaren, gizartearen edota generoaren ulerkeran?

Noblezia ilustratu euskaldunak erlijioaren eta konkretuki katolizismoaren ulerkerari berri bat proposatu zuen antzerkiari, luxuari, jantziari edo zibilizazio prozesuari buruz idatzi zituzten testuek aditzera ematen duten moduan. Subjektua bera ulertzeko forma berri bat planteatu zuten, naturarekin eta errealitate sozialarekin harremantzeko eredu berriak eskainiz. Eta berrikuntza hauekin batera, generoari dagokionez ere garairako berritzaileak ziren ikuspegiak nabarmenak dira³¹. Alde batetik, *Euskalerraren Adiskideen Elkarteko* kideek Europan zehar indarrean zeuden natur zientziei buruzko teoriak ezagutzen zituztela kontuan izan behar dugu beraien idatzietan ageri denez. Georges Louis Leclerc, Buffon kondea, eta Carl Linnaeus bezalako egileak ezagutzen, ikertzen eta lantzen zituzten. Honekin batera, beraien kide inportanteak mediku izan zirela eta, oro har, medikuntzan interes nabarmena erakutsi zutela badakigu³². Alegia, errealitatea eta gizakiak ulertzeko eredu enpirikoagoak eta materialistagoak ezagutzen zituzten. Hau da, natura ikuspegi zientifiko baten argipean ulertu zutela esan daiteke. Zientzia esperimentalean agertu zuten interes hau, alta, ez zen beraien fede katoliko sakonarekin kontrajarri. Europa mailan egin diren azken urteetako ikerketek adierazi duten moduan katolikoa izan zen korrante ilustratu garrantzitsu bat ere existitu zen³³, zeinaren baitan euskal ilustratuak kokatu daitezkeen.

vascos (1760-1808), Madrid, Centro de Estudios Constitucionales, 1991, 158. or.; Carlos Martínez Gorriarán: *Casa, Provincia y Rey: para una historia de la cultura del poder en el País Vasco*, Irún, Alberdania, 1993, 215.-225. or.

30 Jesus Astigarraga: *Los ilustrados vascos. Ideas, instituciones y reformas económicas en España*, Barcelona, Crítica, 2003.

31 Bakarne Altonaga: "The Basque Enlightenment: New Visions of Gender in the Crisis of the Old Regime" in Silvia Bermúdez eta Roberta Johnson (ed.): *A New History of Iberian Feminisms*, Toronto, University of Toronto Press, 2018, 82.-90. or.

32 Juan Riera: "El ideario médico-sanitario ilustrado y su influjo en la Bascongada", in Guadalupe Rubio de Urquía eta María Montserrat Gárate Ojanguren (ed.): *V Seminario de Historia de la RSBAP. La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y Europa*, Donostia-San Sebastián, Ministerio de Educación y Cultura, 1999, 819.-852. or.

33 Ulrich L. Lehner: "Women, Enlightenment and Catholicism: prolegomena" in Ulrich L. Lehner (ed.): *Women, Enlightenment and Catholicism. A Transnational Biographical History*, London, Routledge, 2018, 1.-7. or., 5. or.

Natur zientzien aldetik jaso zituzten eraginetaz aparte garaiko beste teoria politikoetatik eta historiografikoetatik ere eragina jaso zuten. Zentzu honetan egile ilustratu britainiarrek, batez ere eskoziarrek, landu zituzten zibilizazio prozesuari eta nazioen aurrerapenari buruzko teorien eragina jaso zuten, Manuel de Aguirre lagunaren idatziek adierazten duten moduan³⁴. Honekin batera, beraien testuetan ilustrazio europarraren sentimentalismoaren – ez bakarrik arrazionalismoaren – eragina nabaria da. Berrikuntza hauek guztiek generoa, feminitatea eta maskulinitatea ulertzeko moduan eragina izan zuten. Izan ere, beraien proposamenek ez zituzten testuinguru europarrean planteatutako ideiekin alderatuta desberdintasun handiegirik agertu. Zentzu honetan, emakumeen hezkuntzari buruz planteatu zituzten ideiak amatasun eta domestizitate gozotuaren helburua lortzera bideratuta egon ziren³⁵.

Diferentzia sexualaren inguruan idatzi zutenaren artean adierazgarriena Montehermosoko V. markesari, José María Aguirre y Ortés de Velascori, egotzitako diskurtso bat da, *Discurso Philosophico Moral. La muger*³⁶. Diskurtso honetan Rousseauk emakumeen eta gizonen arteko diferentziari eta harremanari buruz esandakoaren kutsu handia antzeman dezakegu:

la n[atu]raleza que en la finura de las facciones, organizacion, y delicada cutis de la muger, puso tanta diferencia de la de los hombres, nos enseñó, que no las criava para estudios ni para fatigas, que su vella frente, estaria mal empleada en el confuso estudio de un problema matematico: su vota [sic: ¿boca?], fuente de gracias, pareceria mui mal llena de espumas, que vatio el ardor de una disputa theologica: su blanda mano, estaria con igual impropiedad asida a un fardo, con el destino de oprimir con el sus delicados hombros: su recato natural y su rubor son incompatibles con una gorra de Granadero (...) al contrario, el hombre compuesto de partes mas nerviosas, parece destinado por la naturaleza a fin diverso, a la fatiga, a la seriedad, y a la reflex.^{on} [reflexión]. Lo[s] movim.^{tos} [movimientos] mas violentos no son en el, sino usar con plenitud de sus propias facultades³⁷.

Montehermosoren hitzetan hainbat elementu antzeman ditzakegu. Alde batetik, sexuen arteko diferentziak naturaren argudioan oinarritzen

34 Manuel de Aguirre: “Discurso sobre el lujo” in Antonio Elorza (ed.): *Manuel de Aguirre: Cartas y discursos del Militar ingenuo al Correo de los Ciegos de Madrid*, Donostia-San Sebastián, Patronato José María Quadrado, 1974, 167.-174. or.

35 Zentzu honetan ikus Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País: *Plan y Ordenanzas de un seminario para señoritas en la Ciudad de Vitoria bajo la direccion de la Real Sociedad Bascongada*, Arabako Lurralde Hitorikoaren Agiritegia, Prestamero Fondoa, 8. kutxa, 8. zbk.,1784.

36 Testua Julio Urquijok argitaratu zuen 1931. urtean *RIEV* aldizkarian, 22 liburukia, 3. zenbakia.

37 Xabier María Munibe e Idiáquez: “Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País”, *RIEV*, 22:3, 1931, 443.-482. or., 450. or.

zirela erakusten du. Diskurtsoak gizonen eta emakumeen gorputzak naturalki diferenteak zirela ulertzera ematen zuen, bakoitzari esentzia bat zegokiola eta bakoitzak esentzia horren aginduari jarraitu behar ziola adieraziz. Emakumeak gozotasunari, fintasunari eta ahultasun fisikoari lotu zituen. Horiek ziren, bere diskurtsoan, beraien berezko ezaugarri eta muga naturalak. Gizonak, bitartean indarrari eta gogortasunari loturik agertzen ziren. Diskurtso honetan sexuak, naturalizat jotzen zenak, determinatzen zuen emakumeen eta gizonen izaera. Gizonak eta emakumeak, beraz, diferenteak ziren baina elkarrekiko osagarriak aldi berean. Ideia hau horrela adierazi zuen diskurtso berean:

El paralelo de ambos sexos descubre con clarid.^d [claridad] que si fueron criados para distintas funciones, nacieron para un reciproco alivio: Lo que falta al uno, lo presta el otro, y esta combinacion, es el principio de que nace la dulce reciproca atraccion y la intima comunicacion de un sexo con otro³⁸.

Montehermosoren hitzek diferentzia sexuala definitzeko eta sexuen arteko harremanak arautzeko euskal ilustratuak natur zientzietatik gertuago zeuden argudioak erabiltzen hasi zirela aditzera ematen dute. Izan ere, naturaren argudioa egiaren argudioa bilakatu zen, hain zuzen ere, ikuspuntu ilustratuarentzat natura egien eremua bilakatu zelako. Mundu naturala zen gizakiaren, eta oro har errealtatearen, egiak aurkitzeko lekua esperimenez bidez. Horrela, beraien ikuspegiaren diferentzia sexuala trinkotu egin zen. Sexu naturalari egotzitako egiatasun balio zientifikoak generoaren eraikuntza guztiz baldintzatzen zuten. Larramendiren kasuan aurkeztu diren emakume indartsuen irudiekin konparatuta eredu honen desberdintasunak nabarmenak dira.

Zein izan zen ikuspegi honen sustraitzea edo errotzea? Galdera honi erantzun bat ematea ez da batere erraza. Badirudi Ilustrazioak proposatutako diferentzia sexualaren ereduak nolabaiteko jarraipena izan zuela, nahiz eta lineala ez izan, XIX. mendeko estatu liberalaren garapen politiko eta sozialean³⁹. Baina, garaiko iturriek dioskuenagatik badirudi pentsamendu ilustratuak, euskaldunak barne, proposatutako ideal horrek ez zuela nahitanaiez beste ikuspegiaren desagerpena ekarri. XVIII. mende amaierako eta XIX. mende hasierako zenbait lanek erakusten dute ikuspuntu tradizionalagoak ere indarrean mantendu zirela. Euskal Herriko literaturaren mugarriztat hartu ohi den Mogelen *Peru Abarkak*, adibide esanguratsu bat jartzearren, XIX. mende hasieran Larramendik bere garaian irudikatu zituen emakumeen irudi

38 Munibe e Idiaquez: “*Historia*”, 451. or.

39 Mónica Burguera: “«El ángel regio». Respetabilidad femenina y monarquía constitucional en la España posrevolucionaria” in Encarna García et al. (ed.): *Culturas políticas monárquicas en la España liberal*, Valencia, Universitat de Valencia, 2013, 313.-150. or.

oso antzekoak irudikatu zituen. Lan honetan Mogelek lihoa lantzen zuten emakumeen inguruan hurrengo adierazi zuen: “Jangoicuac bedeinca zuben biar eguitemo gogua, ta besuetaco sendotasuna”⁴⁰. Lan berean, lihoa lantzen zuten emakumeei egotzitako kanta bat gehitu zuen, “Espatarijen cantia lino guijetaco aldijetan”, zeinetan hurrengo irakur daitekeen Maisu Juan pertsonaiaren ahotan: “Eztaquit topauco dan inun andracume euscaldunac baño senduagoric”⁴¹. Peruk Maisu Juani eman zion erantzunak ere ildo bera jarraitzen du:

¿Noc sinistu lei, guizonen premiña baga artu daiqueezala linuac dacazan, ta enzun dituzun arazo ta lor guztijac? Soluetan dacuscuz achurretan, laijetan, saraquetan, jorraan ta edocein biar eguiten. Badaquiye idijac buztartuten, itzaintzia eguiten, itaurreco dabilzala nos nai. Lau nescatilla baserrijan acijac, zucenduco leuquee echaguntza andi bat, guizonen premiña baga ecertaraco⁴².

Mogelen garaia, noski, ez zen Larramendiren garaia, baina Larramendiren irudien oihartzuna nabarmena da. Honek korrante ilustratuek proposatutako emakumetasunaren irudien indarra erlatiboa izan zela, edo gutxienez guztiz hegemoniko bihurtu ez zela, adierazten du.

Alabaina, Mogelen garaian ere, beste motatako ikuspuntuak ere jaio ziren, baita euskal egile erlijiosoen komunitatearen baitan ere. Horren adibide dira Juan Bautista Agirre Asteasukoaren *Eracusaldietan* irakur daitezkeen berbak:

Emacumeari dagozcan gaucen artean irugarrena da, echea, eta umeac nola nai utzita, guizalanteta ez joatea. Echeetan, guyenetan beintzat, bada emacumeentzat echapean bertan lanic asco; alaere aditzen det, asco emacume dirala, echean egotea baño, nayago duenac guizartean layan, eta achurrean aritzea, utziac aurrac zaigabe, ta bazcaria zacurren, eta catuen contura. ¿Cer etorri al diteque emendic? Itz loi, edo desonestoac aditzea, ongui ez dirudien lasaiqueriac ecustea, eta Jaunaren beldur Santua guchitzea⁴³.

Horrelako adierazpenei hurrengo hitzak gehitu behar zaizkio: “Enzun itzazu, Cristaua, andre indartsuari Espiritu Santuac ematen diozcan alabanzac; baña ez uste izan, *andre indar[t]suaren* icena ematen diola guizonen lanetan sartzen danari, baicic echea ongui gobernatzen dua-

40 Juan Antonio Moguel: *El Doctor Peru Abarca*, Durango, Imprenta de Julian de Elizalde, 1881, 141. or.

41 Moguel: *El Doctor*, 147. or.

42 Moguel: *El Doctor*, 147.-148. or

43 Juan Bautista Agirre: *Eracusaldiac, I*, Donostia, Hordago, 1978, 579. or.

nari”⁴⁴. Agirreren adierazpenetan Larramendiren edo Mogelen ikuspuntuetan baserriko lanak emakumeei ematen zien duintasuna ez da inon ageri. Izan ere, laudoriatua zen indar horren zentzua guztiz aldatu zen Agirreren hitzetan. Are gehiago, arbuaiatua zela ematen du. Badirudi, gainera, bere diskurtsoak gizonen eta emakumeen arteko diferentzia sexualaren ikuspuntu trinkoago bat eskaini zuela, nahiz eta noblezia ilustratuak planteatukoarekin konparatuta zentzu guztiz desberdina izan.

Zeintzuk dira aldaketa hauen arrazoiak? Juan Bautista Agirre bezalako autoreei mende amaieran garai asaldatuak bizitzea egokitu zitzaien; Frantziako Iraultzaren eta Konbentzio Gerraren ondorioak bizitzea egokitu zitzaien. Egoera gorabeheratsuaren arreean beraien ikuspuntu erlijiosoak gogortu eta erradikalizatu zituzten aldaketen kontrako erreakzio batean⁴⁵. Agirreren lan erlijiosoetan bezala, Manuel Umerezen lanetan ere horrelako tendentzia antzeman daiteke. Hipotesizat planteatzen genezake mezu erlijioso zorrotzaren baitan eman zen erreakzioarekin batera misoginiaren erradikalizazio nabarmena ere eman zela. Aipatu ditudan azken bi autore hauen lanetan, esaterako, emakumeekiko ikuspuntua askoz negatiboagoa da. Emakumeen duintasunerako edo perfekzioerako inolako salbuespen lekurik utzi ez zutela horren adierazle da. Zentzu honetan, Umerezek bere *Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat* lanean moja edo emakume santuen inguruan hurrengo adierazi zuen: “bada gucien bat onelacuac ere galdu oi dira, nundic nora ez daquiela; au ecusten dogu Mongeen (sic) Conventuetan” honen ostean adieraziz mojekin hau gertatzen baldin bazen “¿zer guertatuco da bere gogoaren antoju eta libertadera Mundubaren erdian Gobernadore on baten frenu bague vizi dan Emacume baten escubetan?”⁴⁶. Testuinguruaren aldaketarekin batera ikuspuntuetan aldaketak etorri ziren. Azken autore hauen kasuan Katolizismo tradizionalaren misoginiaren gogortzeak ikuspuntu eta eredu desberdinen sorrera eragin zuen, nahiz eta guztiak marko kontzeptual erlijioso berdinetik sortu ziren.

Orain arte ikusi dugun moduan, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar diferentzia sexualaren ulerkeran eman ziren aldaketak ezin dira eredu ordezpen progresiboan oinarritzen den patroien arabera ulertu. Gerora ere, XIX. mendean zehar, emakume birilaren ideia hainbat diskurtsotan berreskuratu zen ideia politiko eta sozial desberdinak

44 Agirre: *Eracusaldiac*, 579. or.

45 Altuna: *Euskaldun*, 77 eta hurrengoak.

46 Manuel Umerez: *Osaba baten Instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere familiaren gobierno oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme*, Jerardo Elortzaren transkripzioa, Oñati, Oñatiko Udala, 2013, 283.-284. or. Eskuragarria: https://www.xn--oati-gqa.eus/eu/udal-zerbitzuak/euskara-eta-hezkuntza/bedita-larrakoetxea-udal-euskaltegia/argitalpenak/umerez-goribargoitia-1805-_eskuizkribua.pdf/view (Azken bisita: 2017/12/10).

adierazteko asmoz. Eta aldi berean, Ilustrazioak hedatu zuen sexuen arteko osagarritasunaren eredia finkatuz joan zen testuinguruaren arabera esanahi espezifikoak hartu zituen arren. Azken finean, eredu eta diskurtso desberdinak elkarrekin bizi izan ziren eta beraien artean harreman garrantzitsuak eman ziren.

BIBLIOGRAFIA

Agirre, Juan Bautista: *Eracusaldiac, I*, Donostia, Hordago, 1978.

Aguirre, Manuel de: “Discurso sobre el lujo” in Antonio Elorza (ed.): *Manuel de Aguirre: Cartas y discursos del Militar ingenuo al Correo de los Ciegos de Madrid*, Donostia-San Sebastián, Patronato José María Quadrado, 1974, 167.-174. or.

Alberdi, Andres: *Manuel de Larramendi (1690-1766)*, Vitoria, Gobierno Vasco, 1990.

Altonaga, Bakarne: “The Basque Enlightenment: New Visions of Gender in the Crisis of the Old Regime” in Silvia Bermúdez eta Roberta Johnson (ed.): *A New History of Iberian Feminisms*, Toronto, University of Toronto Press, 2018, 82.-90. or.

Altuna, Belen: “La invención del baserritarra como verdadero cristiano vasco”, *Bitarte: Revista Cuatrimestral de Humanidades*, 4, 2000, 5.-30. or.

Altuna, Belen: *Euskaldun fededun. Euskaldun ona izateko modu baten historia*, Zarautz, Alberdania, 2003.

Aresti, Nerea: “La categoría de género en la obra de Joan Scott”, in Cristina Borderías (ed.): *Joan Scott y las políticas de la historia*, Barcelona, Icaria, 2006, 223.-232. or.

Aresti, Nerea: “The Gendered Identities of the ‘Lieutenant Nun’: Rethinking the Story of a Female Warrior in Early Modern Spain”, *Gender & History*, 19:3, 2007, 401.-418. or.

Aresti, Nerea: “Juegos de integración y resistencia. Discursos normativos y estrategias feministas (1860-1900)”, *Historia Social*, 68, 2010, 25.-46. or.

Aresti, Nerea: “Generoa, gorputzak eta historia”, in Alaitz Aizpuru eta Bakarne Altonaga (koord.): *Diskurtoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*, Bilbo, UEU, 2014, 73.-95. or

Astigarraga, Jesus: *Los ilustrados vascos. Ideas, instituciones y reformas económicas en España*, Bartzelona, Crítica, 2003.

Ayerbe, María Rosa: “Manuel de Larramendi y la enseñanza femenina en el siglo XVIII. Constituciones del Seminario de Niñas ‘Nuestra Señora de la Soledad’, de Bergara (1741)”, *Boletín de RSBAP*, 64:2, 2008, 795.-815. or.

Bolufer, Monica: *Mujeres e Ilustración. La construcción de la feminidad en la España del siglo XVIII*, Valencia, Institució Alfons el Magnànim, 1998.

Burguera, Mónica: “«El ángel regio». Respetabilidad femenina y monarquía constitucional en la España posrevolucionaria” in Encarna García et al. (ed.): *Culturas políticas monárquicas en la España liberal*, Valencia, Universitat de Valencia, 2013, 313.-150. or.

Butler, Judith: *Bodies that Matter on the discursive limits of 'sex'*, New York, Routledge, 1993.

Cabrera, Miguel Ángel: *Historia, lenguaje y teoría de la sociedad*, Madrid, Cátedra, 2001.

Del Valle, Teresa (zuz.): *Mujer vasca: imagen y realidad*, Bartzelona, Anthropos, 1985.

Esteban, Mari Luz: "Gorputzaren antropologia, gorputz ibilbideak eta genero-harremanak" in Alaitz Aizpuru eta Bakarne Altonaga (koord.): *Diskurtsoak, eraikuntzak, gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*, Bilbo, UEU, 2014, 97.-107. or.

Fernández Albaladejo, Pablo: "Manuel de Larramendi: la particular historia de Guipúzcoa", *Saioak*, 1, 1977, 148.-156. or.

Fernández Sebastián, Javier: *La génesis del fuerismo: prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco, 1750-1840)*, Madrid, Siglo XXI, 1991, 19.-21. or.

Foucault, Michel: *Historia de la Sexualidad. 1. La voluntad de saber*, itzul. Ulises Guñazú, Madrid, Siglo XXI, 1980.

Knott, Sara eta Taylor, Barbara (ed.): *Women, Gender and Enlightenment*, Hampshire, Palgrave, 2005.

Lakarra, Joseba Andoni (ed.): *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena 1690-1990*, Andoain, Andoaingo Udala, 1992.

Laqueur, Thomas: *Making sex. Body and Gender from the Greeks to Freud*, Cambridge, Massachusetts & London, Harvard University Press, 1990.

Larramendi, Manuel: *Corografía de Guipúzcoa*, Donostia-San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969.

Lehner, Ulrich. L: "Women, Enlightenment and Catholicism: Prolegomena" in Ulrich L. Lehner (ed.): *Women, Enlightenment and Catholicism. A Transnational Biographical History*, London, Routledge, 2018, 1.-7. or.

Martínez Gorriarán, Carlos: *Casa, Provincia y Rey: para una historia de la cultura del poder en el País Vasco*, Irún, Alberdania, 1993.

Michelena, Luis: *La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)*, Oviedo, Universidad de Oviedo, 1959.

Moguel, Juan Antonio: *El Doctor Peru Abarca*, Durango, Imprenta de Julian de Elizalde, 1881.

Munibe e Idiáquez, Xabier María: "Historia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País", *RIEV*, 22:3, 1931, 443.-482. or.

126 Olaziregi, Mari Jose: "Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tra-

dizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa”, in *Euskal Gramatikari eta literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II)*, 2. lib., Bilbo, Euskaltzaindia, 2003, 203.-221. or.: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/54862.pdf>. (Azken kontsulta 2017/09/22.)

Otazu, Alfonso: *Igualitarismo vasco: mito y realidad*, Donostia-San Sebastián, Txertoa, 1973.

Porter, Roy: *Flesh in the Age of Reason*, London, Penguin, 2004.

Portillo, José María: *Monarquía y gobierno provincial. Poder y constitución en las provincias vascas (1760-1808)*, Madrid, Centro de Estudios Constitucionales, 1991.

Riera, Juan: “El ideario médico-sanitario ilustrado y su influjo en la Bascongada”, in Guadalupe Rubio de Urquía eta María Montserrat Gárate Ojanguren (ed.): *V Seminario de Historia de la RSBAP. La Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País y Europa*, Donostia-San Sebastián, Ministerio de Educación y Cultura, 1999, 819.-852. or.

Said, Edward: *Orientalism*, New York, Vintage, 1979.

Scott, Joan W: “Gender: a Useful Category of Historical Analysis”, *The American Historical Review*, 91:5, 1986, 1053.-1075. or.

Scott, Joan W: “Deconstructing Equality-Versus-Difference: or, The Uses of Poststructuralist Theory for Feminism”, in Wendy Kolmar y Frances Bartkowsky (ed.): *Feminist Theory: A Reader*, California, Mayfield, 2000, 414.-423. or.

Scott, Joan W: “Género: ¿Todavía una categoría útil para el análisis?”, *La manzana de la discordia*, Itzul. Gabriela Castellanos, 6:1, 2011, 95.-101. or.

Soria Sesé, Lourdes: “La hidalguía universal”, *Iura Vasconiae*, 3, 2006, 283.-316. or

Tellechea, Ignacio: “Introducción”, in Manuel Larramendi, *Corografía de Guipúzcoa*, Donostia-San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969, I.-XXXV. or.

Umerez, Manuel: *Osaba baten Instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere familiaren gobierno oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme*, Jerardo Elortzaren transkripzioa, Oñati, Oñatiko Udala, 2013: <https://www.xn--oati-gqa.eus/eu/udal-zerbitzuak/euskara-eta-hezkuntza/bedita-larrakoetxea-udal-euskaltegia/argitalpenak/umerez-goribargoitia-1805-eskuizkribua.pdf/view>. (Azken kontsulta 2017/09/29).

Valverde, Lola: “Contexto social y situación de la mujer vasca en el Antiguo Régimen” in *Emakumea Euskal Herriko Historian / La mujer en la historia de Euskal Herria*, Bilbo, GITE/IPES, 1988, 35.-45. or.